



Lectio divina

1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Etsita doaz ikasleak Emauserantz. Gauzak ez zaizkie atera uste zuten bezala. Zein ditut bizitzako frustraziorik handienak? Nola erantzuten dut, gauzak nik uste bezala ateratzen ez zaizkidanean? Sumatu al dut Jesus neurekin dudala, zailtasunen erdian edota etsia egon naizenan?
- ✓ Elkartetik alde egitera eraman ditu etsipenak. Itxaropenik ezak barrua hartzen didanean, alde egiten dut besteengandik? Neure baitako ezkortasunean kateatua gelditzera eramaten al nau pesimismoak?
- ✓ Ogia zatitzean ezagutu zuten ikasleek. Jesusi jarraitzeko indarra eta janaria aurkitzen dut Eukaristian ala ohikunea, errittoa, betetzea besterik ez da niretzat? Zer egin dezaket Emausko bi ikasle haien antzeko jarrera izateko?
- ✓ Lukasen elkarteko kristauak Kristo piztua non aurki zezaketen galdeztzen zuten. Antzematen al diot Jesus piztua nirekin datorrela eguneroko bizitzan? Zerk eragozten dit Maitasun horretan konfiantza izatea?

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Eska diezaiogun Jaunari bizitzako bidean lagun egin diezagula, Bera ondoan dugula antzeman dezagun, bereziki tristura dugunean, gogogabeak gaudenean, zailtasunak ditugunean, horrelakoetan ez baita erraza Bera aldamenean dugula bizitzako bidean.

Eskerrik asko, Jauna, buru txikikoak eta motelak izanik ere, gurekin gelditu nahi duzuela behin eta berriz oroitarazten diguzulako, Zuk beste inork ezin baitigu tristura pozkida bihurtu eta gaua egunsenti.

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Orain ere ondoan dugu Jesus piztua, orain ere Liburu Santuak azaltzen dizkigu, ogia zatitzeko zeinua egiten du guretzat eta Berarekin eta sendeekin konprometitzera garamatzate. Zer eskatzen dizu Jaunak bizitzako une honetan?

JAINKOA
JARTZEN
DUT NITZE
ITXAROPENA

Hitzarekin
topatuz

9. fitxa, lk 24, 13-35

EZ AL GENEUKAN BARRUA
SUTAN, BIDEAN LIBURU SANTUAK
AZALDUZ MINTZO ZITZAIGUNEAN?



Donostiako
Gozaindegia
Obispado de
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN

URTEURRUMA
ANIVERSARIO



Lk 24, 13-35

¹³ Egun hartan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemik hamaika kilometrora. ¹⁴ Gertakari guztietaz mintzo ziren elkarrekin. ¹⁵ Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera ondoratu zitzairen eta beraiekin joan zen. ¹⁶ Baina ikasleek begiak itsu zituzten eta ez zuten ezagutu. ¹⁷ Jesusek esan zien: “Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?” Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, ¹⁸ eta beraietako batek, Kleofas zeritzanak, honela erantzun zion: “Zu izango zara egun hauetan Jerusalemen gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra! ¹⁹ “Zer gertatu da, bada?”, esan zien hark. Haiek erantzun zioten: “Jesus Nazaretarrarena; profeta handia zen hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan; ²⁰ baina gure apaizburu eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutziltzatu. ²¹ Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel; baina badira hiru egun hori gertatu dela. ²² Egia da gure arteko emakume batzuek harririk utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilotzara ²³ eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeru batzuk agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. ²⁴ Gutako batzuk ere izan dira hilobian eta emakumeek esan bezala aurkitu dute guztia; baina bera ez dute ikusi. ²⁵ Orduan, Jesusek esan zien:

“Bai buru txikikoak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! ²⁶ Ez ote zuten Mesiasak hori guztia sufritu behar bere aintzara iristeko?” ²⁷ Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz zioten guztia azaldu zien.

²⁸ Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, aurrera jarraitzeko keinua egin zuen Jesusek. ²⁹ Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. ³⁰ Ondoren, elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik, beinekazioa esan, zatitu eta eman egin zien. ³¹ Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten, baina Jesus desagertu egin zitzairen begi aurretik. ³² Haiek elkarri esan zioten: «Ez al geneukan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzaigunean?» ³³ Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren; eta Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, ³⁴ honela ziotela: «Egia da! Piztu da Jauna eta Simoni agertu zaio».

³⁵ Bi ikasleek bidean gertatua eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten kontatu zieten.



Textua ulertzeko

- ✓ Lukasen ebanjelioan hauxe dugu Jesus Piztuaren agerraldiei buruzko bigarren kontara. Oraingoan, bi ikasleri agertu zaie. Etsiak doaz bi ikasleak, Jesusen jarraia zuten itxaropena lausotu zaielako: «Guk uste genuen Berak»...
- ✓ Hala ere, Jaun piztuarekin izan zuten elkarketak pozkario bihurtuko zuen haien samina. Kontaeraren ritmoak prozesu emozionala eragiten dio irakurleari, hasierako etsipenetik eta tristuratik Piztua ezagutzeraino «ogia zatitzean». Poza eta aditzera emateko lehia piztu zuen horrek ikasleengan.
- ✓ Jakin-nahiz inguratzen zaiek bidari da Jesus; ez dio axola zein berri duten, baizik eta nola ari diren bereganatzen, bizitzen, berri horiek. Pedagogia arretatsuz, ikasleekin batean abiatzen da bidean eta une hartan zerk kezkatzen dituen galdetzen die. Ikasleek beren etsipena azaltzen diote. Jesus erromatarren mendetik askatuko zituen Mesias izango zelakoan zeuden ikasleak. Kleofasen jakinarazten dio zenbat denbora igaro den gertaera izan zenetik: hiru egun, inor bizira itzul daitekeela itxaroteko epea bukatu den denbora. Emakumeek emandako berria aipatzen diote, baina sinetsi ez duten zerbait bezala, itsutuak baitzituzten begiak, eta etsipenak hartuak zeuden, itxaropenik gabe.
- ✓ Ikasleen sinesmena ez da behar bezain sakona. Hori da arazoa. Izan ere, gauza batzuk Jainkoaren laguntzaz baizik ezin dira ulertu eta jaso. Horregatik hasten da Jesus Liburu Santuek berari buruz ziotena azaltzen.
- ✓ Jesusek bere burua ikusarazten die. Ogiarekin zerikusia duten ekintza guztiak gonbidatuak egiten ditu: ogia, hartu, Jainkoari eskerrak eman, zatitu eta eman. Azken Afarian bezalaxe. Orduan ireki zitzaizkien ikasleei begiak; ikusmena berreskuratzeko dohaina egin die Jainkoak. Orain ohartu dira nor zen gizon hura, eta dena ulertzen hasi. Baina Bera desagertu da. Orain beren barnean sumatzen dute. Ikasleen barru-barruan Biziaren Jauna bihurtu da Jesus. Bizipen honek abiarazi egin ditu ikasleak, berriz ere elkartera itzultzeko, ikusi eta bizi izan dutena denei adieraztera.
- ✓ Lukasen elkarteko kristauek honako galdera hau egiten zioten bere buruari: Non aurkitu gaur egun Kristo piztua? Galdera horri erantzuteko, kontara zoragarri hau eskaintzen du ebanjelariak, elkarteak gogoan zituen tradizioak jasoz. Eguneroko bidean gurekin dator Piztua, Liburu Santuak fede-giroan irakurtzen ditugunean, ogia zatitzean, elkarte biltzen denean.

